

## ARAZO EGOERA

# BASOAN ARTISTA

**ARLOA:** Artea, natur zientziak

**MAILA:** DBH osoa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

**Natura aberatsa** da. Artistek ere, naturan murgiltzen dira **inspirazio maila gorena** lortzeko. Naturak eskaintzen duen askatasunean, **sormenak ez du mugarik**, pentsamenduek hegan egiten dute eta patxada sentitzen da. Patxada horretan **ideia disdiratsuak** sortzen dira.

## ARAZOA

Arte ederretako ikasle bat gure eskolara dator. Berak, garbi esan digu, naturatik hartzen dituela ideiak, eta naturako elementuetan oinarrituz egiten dituela bere arte lanak.

# Naturan hezten

**Sormenaren inguruko ikerketa** bat egiten ari da, non ume eta gaztetxo garaian, sormen maila altuenak izaten diren hipotesia lantzen ari delarik. Hori egiaztatzeko, naturara hurbilduz, **gaztetxoek egindako artelanak** aztertu nahi ditu.

Animatzen al zarete ikerketa honen partaide izatera?

## XEDEA

Inguruan dugun **eremu natural batetara gerturatu** eta bertako **ingurunea ezagutu** ondoren, naturak eskaintzen dituen **elementu naturalen bidez, arte lanak** sortzea.

## HELBURUAK

- Zentzumenen bidez inguru natural horrekin **gertuko harremana** sortzea.
- Naturak, **lasaitasuna lortzeko** eskaintzen dizkigun **abantailez konturatzea**.
- Giro errespetagarri eta lasaiaz gozatzuz, **sormenari bidea** ematea.
- Elementu naturalak ezagutu eta beraiekin egin daitezkeen **ideiak lantzea**.
- Naturako txoko bakoitzean landu daitezkeen, **forma, kolore, eta beste hainbat ezaugarriez jabetzea**.
- **Naturaren balioaz** eta bera **zaintzeko beharraz ohartzea**.

## ATAZA

Gertuko ingurune natural batekin, **zentzumenen bidez, gertuko harremana lantzea** eta bertan aurkitzen diren **elementu naturalak erabiliz, artelanak sortzea**.

## JARRAIBIDEAK

- Ingurune naturala aukeratzeko orduan, **aniztasun aldetik aberatsa** izatea komeni da, irizpide hauek lagun dezakete:
  - **Adin ezberdinetako eta zuhaitz mota ezberdinez** osatutako basoa.
  - **Lurzoruan, egur hilaren presentzia**, esaterako, eroritako adar eta zuhaitzak.
  - Erreka, iturri, putzu,...**uraren presentzia**.
  - **Argitasun maila altua**.
  - **Toki laua**, aldapa handirik gabekoa.
  
- **Zentzumenen bidez, natura ezagutu** eta gertuko harremana izateko ekintza batzuk egingo dira. Ondoren borobilean jarrita, esperientzia elkarbanatuko da:
  - Borobilean gaudelarik, behatzaile papera hartuz eta **ikusmenaren bidez**, taldeko kideei begiratu diegu; nola dauden, nola begiratzen duten,... Borobilaren barruko lurra nolakoa den, zer dagoen, borobiletik begirada urrunduz, zuhaitzik dagoen, nolakoak diren, ea mugitzen diren, animaliarik badagoen, hala balitz, nolakoa den, nola mugitzen den,...
  - **Ukimenaren bidez**, inguruan dugun naturako elementuak ukituko ditugu, eskuko behatzekin, aurpegiko masailarekin, hankekin,...
  - **Usaimenaren bidez**, elementu ezberdinak aztertuko dira, ahoa eta sudur ingurua eskuekin bilduz, usaindutakoa gehiago barneratzeke.
  - Leku erosoan, zutik, eserita edo bakoitzak nahi duen moduan, begiak itxi eta **entzumenaren bidez**, inguruko soinuetan arreta jarriko da. Gertukoak, urrunekoak, errepikatzen diren, edo soinu bakanak diren,... guregan sortzen duten sentsazioa jasoz.
  
- Ondoren, bakoitzak bere **txoko natural gustokoena aukeratuko** du, non gustora eta lasai egongo den. Urrunegi ez joatea komeni da.

## Naturan hezten

- Txoko horretan, bakoitzak **bere arte lana egingo du**, 15 minutuko denbora batean. Inguruan dauden elementu naturalak erabili daitezke, betiere **bizidunak errespetatuz**.
- Denbora bukatzean, artelanak egindako lekuan utzita, **borobilean elkartuko** gara.
- 3-4 pertsonako taldeak egingo dira eta bakoitzak bere taldekideei, egindako **artelana erakutsiko** die. Egileak, aukeratutako bere txokoa zein den azaldu dezake, bere artelanaren azalpen bat eman dezake eta beste kideek, **behaketa lana** egingo dute..
- Taldekide denek, artelan denak ikusi ondoren, borobilean elkartuko gara. Esperientziak elkarbanatzeko, bakoitzak **taldekideen artelanetatik arreta zeinek piztu dion** aipatuko du.
- Bukatzeko, bakoitzak **soinu, hitz edo gorputz adierazpenaren bidez, bizitako esperientzia** gainontzekoekin elkarbanatzeko aukera izango du.
- Gelan jarraipena izan dezan, egindako artelanei argazkiak atera eta **erakusketa** bat egin daiteke.